

MAI-INGURUA: AGIRRE

Joan dan Udabarrian, Jose Antonio Agirre gure lenengo Lendakaria dala ta "Tele Bista"n izan zan mai-inguruan, Xarriton jaunak gauza jakingarriak esan euskuzan:

Xarriton bera Seminarioan zala, oraintsu illa dan Laffitte apaizak, euzko abertzaletasunaren garra "JEL"en bitartez sartu eutsela seminaristai. Eta sugar orrek bultzaturik, Jose Antonio Agirre ikustearren eta beragaz berba egitearren Paris'eraño joan zirala. (Ordurako ez ete egoan "anti JEL" a sartuta gure Ego Euzkadi'an?... Euskaldun zirala baiña ez fededun agertu bearra?...)

Orain ez dakiala Ardantza naiz beste Lendakari batengana joango litzakezanik. Egia dala Alderdiak, klandestinidadean, Franco'ren aldian, Egoaldetik Iparraldera bidaltzen eban zabalkundea gazteleraz izanik, Partiduak ez eukala erakarririk eurentzat. (Gure zoritxarra: frantzeza ta espaiñera euskerea baiño lenago edo bakarrik erabiltea. Nik neuk, Laffitte jauna, frantzesez sermogiñan eza-gutu neban: zein beste izkuntzatan egingo eban ba, Ange-lu'ko Donibanen?... Krutwig jaunak be, Ipar Euzkadi'ra iges egin ondoren, bertatik, "Vasconia" erdera utsez idatziriko liburua, ez ete jakun ona eldu?...)

Eta azkenik, nireztat barri-barria izan zan beste au entzun genduan: Don Resurreccion Azkue, Euskaltzainburua, bizitzako bere azken-urteetan, bildurturik egoala Euskaltzaindiko "gazte boltxebikeekin". (Gudara ez joatearren, izkuntzen zertifikaduak lortzen ibilitako 20 urte-dun aleman euskalduna, Don Resurreccion'ek ber-berak erdi illik egoan Euskaltzaindia suspertzeko ez eban ba sartu?)

Oraintsu Krutwig'ek "Aurrez-aurre" telesailan jakinazo euskunez, Don Resurreccion'eri emon etsozan pozak: Don Resurreccion'ek Krutwig'en esanez, iru "Aita" sartu zituan Euskaltzaindia'ra: Lekuona "Zarra", Villasante eta Laffite.

Olantxe dira kontu zarrak: bizi, ikusi ta ikasi.

MAITENA'K

ESKUTITZ AGIRIA "ZER"EN ZUZENDARIARI

Olazar jauna, Ezdakitz eskeintzen deutzudana onartua izango dan. Gure gaztedi euskalduna buru argidun ta gogoetariak aldizkari "Zer" au ontzat artu ta irakurri daian Batzar Nagusi Batikano Bigarren eragille ta argitzaillerik nagusienetaraikoa dan Josu Lagundi'ko Karl Rhaner'ek idatzi eban idatzi garrantzidun bat euskeratzea asmau dot. 158 orrialdeko liburutxu onen izena "Arazo bat daukat" da. Zetarako argiratu eban idatzi au? Gazteai laguntza emoteko.

Rhaner'ek ardura andiz etorkizunak sinismena gorde-teko arrisku gatzak eukingo ebezala ikusi eban, ta augaitik lagundu gura eutsen *erlijioaren kontrako asmakeriak aurkeztu*, jakintza aurreraldi ta bizibide erosoko gure egunotan. Zelan sortu zan idatzi-liburu ori? Uri andi baten abade-jauari gaztediaren pastoralgintzan ziarduala, Aita Rhaner teologu ospatsuari eskutitzak bialdu egioezala emon eutsen aolkua.

Teologu idazle onek gastiengandik arturiko eskutitza ipinten eban bere liburuan ta ondoren erantzun egokia emon.

Nire idaz-lan euskeratua labur izango da. Orri lauren zabaldi bikoiz naikoa izango dala uste dot, gaiak berez sakonak izanez, irakurle gazteak gogartu astiro ta ausnartu bear dabez-eta.

AITA LETONA'K

Pozik artu ta argitaratuko doguz Aita Letona'ren lanak, esandako baldintza orreik beteten dirala eta gazteentzat izan arren, elduai be ez dautsela kalterik egingo uste dogu, batez "teologo" ain aundiarenak eta gaurko giroari buruz diran ezkerok.

ZUZENDARITZAK